

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Zientzia independentea?



© MONSANTO COMPANY

MINNESOTAKO UNIBERTSITATEKO (AEB) William Hutchison ikerlariak zuzendutako eta *Science* aldizkarian argitaratutako azterketa baten arabera, arto transgenikoak onura ekonomiko handiak ekarri dizkie AEBetako nekazari askori.

Azterketa horren arabera, 1996an *Ostrinia nubilalis* intsektuarekiko erresistentea den Bt artoa merkaturatu zenetik, irabazi galantak izan dituzte arto mota hori erabili duten baserritarrek, baina baita erabili ez dutenek ere.

Nola liteke? Batez ere artasoro ez-transgenikoak artasoro transgenikoetatik hurbil zituzten nekazariak izan bide dira irabazi ederrak izan dituztenak. Hutchisonen lantaldeak dioenez, arto transgenikoaren eraginez intsektu populazioa asko murrizten da, eta horrek mesede egiten die hurbil dauden artasoro ez-transgenikoei. Hazi ez-transgenikoak merkeagoak direnez, horiek erabiltzen dituzten baserritarrek etekin handiagoa lortzen dute, azkenean, transgenikoak erabiltzen dituztenek baino.

Ikerketaren emaitzak berehala zabaldu dira lau haizeetara. Alabaina, Hutchisonen taldeak ez du aipatu artasoro ez-transgeniko asko transgenikoekin kutsatuta daudela, ez eta Monsanto, Bt artoa saltzen duen enpresak, patente-eskubideak ordaintzeko eskatzen diela kutsatutako lurren jabeek, sarritan epaitegietara joz. Zenbait webgunetan gogorarazi dutenez, komeni da kontuan hartzea ikerlana sinatu duten hamazortzi zientzialarietatik bostek nekazaritza-enpresa handiekin lotura daukatela. Seguruenik ez dute jasoko transgenikoen kalteen ebidentziak aurkitu dituzten ikerlariak adina egur.

Quark kitzikatua

GENEVAKO (Suitza) CERN ikerketa zentroan ahalik eta partikula txikienaren bila jarraitzen dute. Horretarako partikulak ahalik eta abiadurarik handienean eta aurkako noranzkoan jartzen dituzte, talka egin dezaten.

Orain arte ezagutzen diren partikularik txikienak Batavian (Illinois, AEB) dagoen Fermilab laborategian antzeman zituzten, Tevatron izeneko partikulen arteko talka eraginez 870 GeV-eko (gigaelectronvolt) energiarekin. Partikula gako horiek quark-ak dira, eta kitzikatzen badira beren baitan egon daitezkeen partikula txikiagoak –existitzen badira– agerian gera daitezke. CERNen Illinoisko errekorra hautsi dute, eta 1.260 GeV-eko energiaraino kitzikatu dituzte quarkak. Azpi-partikulak lortuko diren laster jakingo dugu.

Babeslea: iametza Interaktiboa

Giltzurrun artifizial txertagarria

Kaliforniako Unibertsitateko ikerlari talde batek giltzurrun artifizial baten prototipoa aurkeztu berri du. Prototipotik produktura pasatzea lortuz gero, egun dialisitik bizi diren milioika pertsonaren bizi-kalitatea erabat aldatuko da. <http://ttiki.com/18128> (Gaztelaniaz)

Ukitutakoa sentitzen duen esku bionikoa

1980. urtean *Inperioaren kontraerasoa* filmean “gaiztoak” besoa moztu zion “ona”-ri, eta azken horri besa bionikoa jarri zioten borrokan segitu ahal izateko. Orduan zientzia-fikzioa zen hura errealitateetik hurbilago dago egun; are gehiago, ukitzen duena sentitzeko gai den besa artifiziala garatze bidean egon liteke.

<http://ttiki.com/18129> (Gaztelaniaz)

Artikoko arrainak ez izoztearen arrazoiak

Artikoko uren tenperatura $-1,8^{\circ}\text{C}$ koa izaten da une askotan, eta odolaren izozte-tenperatura $-0,9^{\circ}\text{C}$ koa. Zergatik, bada, ez dira izozten Ozeano Artikokoan bizi diren arrainak? Alemaniako eta AEBetako ikerlari talde batek horri buruzko argibideak eman dizkigu.

<http://ttiki.com/18130> (Gaztelaniaz)

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16